# DIMA




## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Purpurazko hondoan zilarrezko giltza bi sotuer eran eta gailenduta Aita Santuaren koroa. Zilarrezko borduran inskripzio bat baltzean

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de púrpura, dos llaves de plata en sotuer y brochante, corona papal de oro bordura de plata, con una leyenda en letras de sable.

## AITAMEN HISTORIKOA

Arratiko merindadeko eleizatea, Bizkaiko Jaurerrikoa. Zortzi auzunetan banatuta egoan, eta Gernikako Batzar Nagusietan 61. eserlekua eta botua eukazan.

Udalbarrutian historiaurreko gizakien aztarnak aurkitu dira. Baltzolako kobazuloan edo Kobaldekokoban, Dimako Indusi auzunean, estratu neolitikoak, azilienseak eta magdaleniensedun aztarnategia dago, eta bertan animalien eta gizakien aztarnak ezeze, txanponak eta hilarriak be aurkitu ziran; gaur egun galduta dagoz. Ustez, magdaleniense garaikoak ziran. Kobaren barruan silex aziliense ugari, eta animalihazurrak eta haginak falta dituan goiko masailazurra be aurkitu dira. Diman neolitikoaren garaiko harrizko aizkora be aurkitu zan (25,5 cm-koa), eta gaur egun Euskal Museoan dago ikusgai. Axlor hatxaren babesean, Baltzolako kobatik hur, eta Jentilzubiren alboan, *facies musterien - se* industria daukan aztarnategi bat dago. Aztarnategi hori J. M. Barandiaranek aurkitu eban 1932an.



## RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia de la merindad de Arratia, Señorío de Bizkaia, ocupaba el voto y asiento nº 61 en las Juntas Generales de Gernika y comprendía ocho barriadas que estaban bajo su jurisdicción.

Se han hallado en su término municipal vestigios de población prehistórica. En la caverna de Balzola o Kobaldeko-koba, situada en el barrio Indusi del pueblo de Dima, hay un yacimiento que contiene estratos neolíticos, azilienses y magdalenienses. Fueron hallados restos de animales y de hombres además de lápidas de sepulcro y monedas, hoy desaparecidas. Se cree que pertenece a la época del magdaleniense. En su interior se han encontrado gran cantidad de sílex azilienses, además de muchos huesos de animales y una mandíbula superior, aunque incompleta. También en Dima se encontró un hacha de piedra, del Neolítico, de una largura de 25,5 cm. Hoy se encuentra en el Museo Arqueológico y Etnográfico. En el abrigo bajo roca Axlor, situado al lado del puente natural Jentilzubi, cerca de la cueva de Balzola, hay un yacimiento con industria de *facies musteriense,* que fue descubierto el año 1932 por J.M. Barandiaran.

## IKURRIÑA

Deskribapena: bi ataletan banatuta horizontalean. Goialde urdina eta behalde beilegia. Erdian armarria.



## BANDERA

Descripción: bandera dividida horizontalmente en dos. Zona superior en azul marino e inferior amarillo. En el centro el escudo.